

RIS 2025



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA
BERRIKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN

Europako Batzordearen Europako eskualdeen berrikuntza-sailkapena 2025 *Regional Innovation Scoreboard 2025*

EUSKADIREN BILAKAERA ETA EGOERA

2025eko uztailaren 17a

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

1

1. Laburpena
2. Euskadi eskualdeen berrikuntza-sailkapenean
3. Posizioa Estatuari eta EB-27 taldeari dagokionez
4. Eranskinak

Egoeraren laburpena

Egoera

Regional Innovation Scoreboard 2025 (RIS 2025) txostenak Euskadi **berrikuntza handiko** eskualdeen taldean kokatzen du; zehazki, **#241 eskualdetik #81. postuan**.

Estatu mailan hobekien kokatuta dagoen **bigarren autonomia-erkidegoa** da, eta berrikuntzaren arloko errendimendua EB-27 taldearen batez bestekoaren gainetik dago (% 108,1).

Berriz ere, Europako Batzordeak Euskadi **“bikaintasun-polo”** (*pocket of excellence*) izendatu du, berrikuntza handiko eskualdea delako, berrikuntza ertaineko estatu batean.

Bilakaera

Euskadin berrikuntzaren arloko errendimenduak okerrera egin du EBko batez bestekoarekin alderatuta (RIS 2023an % 109,8koa izan zen, eta RIS 2025ean, berriz, % 108,1ekoa). Hortaz, **Europako 241 eskualdeen artean 72. postutik 81. postura igaro da** eta **berrikuntza handiko**- azpiatalera jaitsi da.

RIS txostena argitaratzen hasi zenetik, **lehenengo aldiz Euskadi ez da izan** Estatuko lehenengo autonomia-erkidegoa sailkapenean. Edizio honetan, **Kataluniak** gainditu egin du; izan ere, bilakaera egokiagoa izan du 23 adierazleetako 14ean.

Euskadiren bilakaera 2018az geroztik positiboa izan den arren (7,5 puntu), **bilakaera apalagoa duen** hirugarren autonomia-erkidegoa da, Errioxaren eta Balear Uharten atzetik.

Aplikatu den **aldaketa metodologikoak** Euskadiren bilakaera baldintzatu du. Zehazki, lehenengo 60 eskualdeen artean Euskadi kokatzen zen bi adierazle kendu dituzte, eta lau berri gehitu. Lau berri horien artean, bitan Euskadi 160 postutik behera dago.


2

1. Laburpena
2. Euskadi eskualdeen berrikuntza-sailkapenean
3. Posizioa Estatuari eta EB-27 taldeari dagokionez
4. Eranskinak


RIS 2025

Euskadi, berrikuntza handiko eskualdea EBn.

Euskadik EB-27 taldearen batez bestekoa baino puntuazio handiagoa jaso du (% 108,1), eta Europako 241 eskualderen artean 81. postuan kokatu da. Europako Batzordeak “bikaintasun polo” izendatu du, berrikuntza handiko eskualdea delako, berrikuntza ertaineko estatu batean. Hori soilik berrikuntza handiko 11 eskualdetan gertatzen da.




Iturria: Europako Batzordea Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2025.



RIS txostenean posizioa erlatiboaren bilakaera

RIS 2023 txostenarekin alderatuta, Euskadi 9 postu beherago dago, eta 1,7 puntu gutxiago lortu ditu; hortaz, *berrikuntza handiko*- azpitaldean kokatu da.



Iturria: Europako Batzordea Regional Innovation Scoreboard (RIS).

Posizioa adierazlearen arabera

Euskadiren posizioa RIS 2025 txosteneko adierazleen arabera

Esparru-baldintzak

Hirugarren mailako
hezkuntza duten gazteak
#2 ↑ 1

Ikaskuntza bizitzan
zehar
#52 ↑ 4

Nazioarteko elkarlanean
landutako argitalpen
zientifikoak
#93 ↓ 7

Argitalpenak % 10 gehien
aipatuenetan
#110 ↑ 4

Banda zabalaren
hedapena
#45 **NEW**

Inbertsioak

Sektore publikoak
egindako gastua I+Gn¹
#134 ↓ 1

Enpresek egindako gastua
I+Gn¹
#34 ↑ 6

ETEek berrikuntzan
egindako gastua, I+G²
ezik, fakturazioarekiko
#163 ↓ 17

ETEen gastua
berrikuntzan³ langile
bakoitzeko
#61 =

Hodei konputazioa
enpresetan
#170 **NEW**

IKT arloan langile adituak
#87 ↓ 21

Jarduera berritzaileak

ETE berritzaileak
produktuan
#168 ↓ 2

ETE berritzaileak
negozio-prozesuan
#186 ↓ 14

Beste ETE batzuekin
elkarlanean dauden ETE
berritzaileak
#67 ↑ 7

Elkarlan publiko- pribatua landutako argitalpenak

#89 =

PCT patenteen eskaerak
#113 ↑ 2

EBko merkataritzako
marken eskaerak
#82 ↑ 1

EBko diseinu-eskaerak
#142 ↑ 8

Inpaktuak


Produktu berrien
salmentak ETEetan
#36 ↓ 31

Enplegua ETE
berritzaileetan
#137 ↑ 19

Teknologia ertain eta
altuko produktuen
esportazioak
#163 **NEW**

Partikula finen isuriak
atmosfera
#126 ↓ 39

Lan-produktibitatea
#109 **NEW**



- (1) Zentro teknologikoak eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ) enpresen artean daude, pribatuak baitira. Ez da gauza bera gertatzen Europako homologoekin, normalean Administrazio publikoen sektorekoan sailkatuta daude.
- (2) I+Garekin lotuta ez dauden eta berrikuntza xede gisa duten ekintzak: ingeniari-tza, diseinua eta bestelako lan sortzaileak; marketina eta marka-irudia; jabetza intelektual eta industrialaren kudeaketa; formakuntza; softwarea eta datu-baseen garapena; aktibo ukigarrien eskuratzea edo leasing-a; berrikuntzaren kudeaketa.
- (3) I+Grako barne-gastuak, I+Grako kanpoko gastuak eta I+Garekin lotuta ez dauden beste ekintza berritzaileetarako gastuak (ikusi aurreko oharra) Iturria Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2025: Regional profile Spain.

Posizioa adierazlearen arabera

RIS txostenean adierazleak aldatzea eta Euskadiren posizioa

Aldatutako adierazleak eta posizioa 2023an

Gaitasun digitalak dituzten pertsonak
#56

Enplegua ezaguera intentsiboko sektoreetan
#41

Honekin
ordezkatu da:

Gehitutako adierazleak eta posizioa 2025ean

Banda zabalaren hedapena
#45

Hodei konputazioa enpresetan
#170

Teknologia ertain eta altuko produktuen esportazioak
#163

Lan-produktibitatea
#109


Euskadi ≤ #60

#61 ≤ Euskadi ≤ #120

#121 ≤ Euskadi ≤ #180


#181 ≤ Euskadi ≤ #241

Euskadiren bilakaera RIS adierazleari dagokionez



Puntuazioa, adierazle bakoitzeko

Euskadiren puntuazioa RIS 2025 txosteneko adierazle bakoitzean



Iturria: Europako Batzordea. *Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2025: Regional profile Spain.*

3

1. Laburpena
2. Euskadi eskualdeen berrikuntza-sailkapenean
3. Posizionamendua Estatuari eta EB-27 taldeari dagokionez
4. Eranskinak

Euskadiren posizionamendua, Europako eskualdeekin alderatuta

Europako eskualdeak RIS txostenean

RIS posizioa	Estatua	Eskualdea	2025eko puntuazioa (EB-27=100)	Kategoria
1	Suedia	Stockholm	155,4	Berrikuntzan liderrak +
2	Danimarka	Hovedstaden	147,0	Berrikuntzan liderrak +
3	Erresuma Batua	London	144,7	Berrikuntzan liderrak +
4	Suitza	Zürich	144,4	Berrikuntzan liderrak +
5	Alemania	Oberbayern	143,1	Berrikuntzan liderrak +
...	...	...	...	...
76	Alemania	Oberfranken	109,6	Berrikuntza handia
77	Portugal	Grande Lisboa	109,6	Berrikuntza handia
78	Belgika	Région wallonne	108,7	Berrikuntza handia
79	Herbehereak	Drenthe	108,4	Berrikuntza handia
80	Eslovenia	Zahodna Slovenija	108,2	Berrikuntza handia-
81	Espainia	Euskadi	108,1	Berrikuntza handia-
82	Alemania	Arnsberg	107,8	Berrikuntza handia-
83	Erresuma Batua	Northern Ireland	107,7	Berrikuntza handia-
84	Suedia	Småland med öarna	107,7	Berrikuntza handia-
85	Alemania	Detmold	107,6	Berrikuntza handia-

Posizionamendua autonomia-erkidegoekin alderatuta

Euskadi, Estatuko bigarren autonomia-erkidegoa RIS 2025 txostenean

Region	Performance relative to EU in 2025	Performance group	Rank	Performance change 2018-2025	Performance change 2023-2025
Spain	92.7	Moderate	-	13.9	2.6
Galicia (ES11)	86.7	Moderate	146	17.9	6.7
Principado de Asturias (ES12)	80.7	Moderate	158	9.9	2.8
Cantabria (ES13)	83.5	Moderate	152	8.1	6
País Vasco (ES21)	108.1	Strong-	81	7.5	-0.7
Comunidad Foral de Navarra (ES22)	103.3	Strong-	104	13	3.8
La Rioja (ES23)	83.4	Moderate	153	5.1	-1.7
Aragón (ES24)	85.5	Moderate	148	12.8	0.1
Comunidad de Madrid (ES3)	106.1	Strong-	90	10.9	-1.2
Castilla y León (ES41)	84.8	Moderate	150	20.3	6.4
Castilla-La Mancha (ES42)	71.1	Moderate-	182	15.9	4
Extremadura (ES43)	70.6	Moderate-	185	17.9	4.7
Catalunya/Cataluña (ES51)	110.7	Strong	72	16.1	4.6
Comunitat Valenciana (ES52)	101.2	Strong-	107	17.4	5.1
Illes Balears (ES53)	72.7	Moderate-	175	7.4	-1.7
Andalucía (ES61)	76.4	Moderate-	163	14.9	2.3
Región de Murcia (ES62)	80.8	Moderate	157	9.7	2.7
Ciudad de Ceuta (ES63)	52.9	Emerging	224	17.8	9.4
Ciudad de Melilla (ES64)	52.2	Emerging	225	7.8	0.7
Canarias (ES7)	70.8	Moderate-	184	17.7	7.1

- RIS 2025 txosteneko metodologiaren arabera, Euskadiren errendimenduak okerrera egin du 2023arekin alderatuta (-0,7 puntu).
- Aitzitik, 2018ko emaitzekin alderatuta, bilakaera positiboa izan da eta 7,5 puntu egin du gora. Halaber, bilakaera apalagoa izan duen hirugarren autonomia-erkidegoa da, Errioxaren eta Balear Uharteen atzetik.

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2025: Regional profile Spain.

Posizionamendua autonomia-erkidegoekin alderatuta

Euskadi eta Kataluniaren puntuazioa eta bilakaera RIS 2025 txostenean



Dimentsioa	Adierazlea	2025eko puntuazioa (EB-27=100)			Bilakaera 2023-2025	
		Euskadi	Katalunia	EUS/KAT	Euskadi	Katalunia
ESKUALDEKO	BERRIKUNTZA-INDIZEA	108,1	110,7	-2,6	-0,7	+4,6
Esparru-baldintzak	Hirugarren mailako hezkuntza duten gazteak	171,1	151,0	+20,1	0,0	+13,1
	Ikaskuntza bizitzan zehar	139,5	120,2	+19,3	+10,2	+31,6
	Nazioarteko elkarlanean landutako argitalpen zientifikoak	136,8	170,8	-34,0	+6,7	+12,1
	Argitalpenak % 10 gehien aipatuenetan	101,6	113,6	-12,0	-0,4	-4,9
	Banda zabalaren hedapena	121,3	126,7	-5,4	+16,4	+11,8
Inbertsioak	Sektore publikoak egindako gastua I+Gn	68,5	91,8	-23,3	+6,9	+12,5
	Enpresek egindako gastua I+Gn	110,3	85,8	+24,5	+9,4	+8,2
	ETEEK berrikuntzan egindako gastua, I+G ezik, fakturazioarekiko	79,8	88,7	-8,9	-10,3	-16,4
	ETEn gastua berrikuntzan langile bakoitzeko	110,0	83,7	+26,3	+1,0	+1,8
	Hodei konputazioa enpresetan	58,1	88,9	-30,8	0,0	0,0
Jarduera berritzaileak	IKT arloan langileak adituak	92,1	116,8	-24,7	-28,8	+26,5
	ETE berritzaileak produktuan	79,9	68,1	+11,8	-4,2	-9,5
	ETE berritzaileak negozio-prozesuan	63,0	69,1	-6,1	-7,6	+11,1
	Beste ETE batzuekin elkarlanean dauden ETE berritzaileak	142,0	74,0	+68,0	+20,9	+23,5
	Elkarlan publiko-pribatuan landutako argitalpenak	129,3	135,5	-6,2	+6,3	+3,6
Inpaktuak	PCT patenteen eskaerak	73,1	77,9	-4,8	-0,1	-15,1
	EBko merkataritzako marken eskaerak	92,9	173,7	-80,8	-19,3	-23,7
	EBko diseinu-eskaerak	64,5	120,5	-56,0	-2,2	+5,4
	Produktu berrien salmentak ETEetan	168,6	169,5	-0,9	-10,7	+19,4
	Enplegua ETE berritzaileetan	90,0	76,9	+13,1	+1,9	+13,0
Inpaktuak	Teknologia ertain eta altuko produktuen esportazioak	69,0	73,0	-4,0	+3,8	+3,9
	Partikula finen isuriak atmosferara	109,5	83,8	+25,7	-18,3	-14,1
	Lan-produktibitatea	107,9	94,0	+13,9	-1,2	+1,5

- Kataluniak bilakaera hobea izan du 23 adierazleetatik 14tan.
- Halaber, adierazle horietako 5etan, Euskadiren puntuazioarekiko aldea 10 puntu baino gehiagokoa da.

Euskadi Katalunia baino 10 puntu gutxiago lortu dituen adierazleak, eta gainera Kataluniaren bilakaera hobea izan duen horietan.

RIS adierazlearen bilakaera

RIS adierazlearen bilakaera Euskadin eta Katalunian RIS 2025 eta 2023 txostenetan



ETE berritzaileen bilakaera Eustat eta INEn, berrikuntza-motaren arabera

	RIS 2021	RIS 2023	RIS 2025	
INE	2018	2020	2022	RIS ADIERAZLEA
ETE berritzaileak	% 32,0	% 41,9	% 42,0	EZ
ETE berritzaileak produktuan	% 19,7	% 22,8	% 22,0	BAI
ETE berritzaileak negozio-prozesuan	% 27,2	% 31,7	% 29,7	BAI
Produktu berrien salmentak ETEetan	% 10,0	% 15,4	% 14,6	BAI

	RIS 2021	RIS 2023	RIS 2025	
EUSTAT	2018	2020	2022	RIS ADIERAZLEA
ETE berritzaileak	% 40,0	% 39,2	% 42,6	EZ
ETE berritzaileak produktuan	% 24,0	% 25,6	% 26,2	BAI
ETE berritzaileak negozio-prozesuan	% 33,7	% 30,5	% 32,9	BAI
Produktu berrien salmentak ETEetan	% 12,7	% 13,2	% 11,1	BAI

INEk erabiltzen dituen ETE berritzaileak produktuan eta negozio-prozesuan adierazleen datuak Europako Batzordeak erabiltzen dituenak dira, RIS adierazle sintetikoa kalkulatzeko.

4

1. Laburpena
2. Euskadi eskualdeen berrikuntza-sailkapenean
3. Posizionamendua Estatuarekin eta EB-27 taldearekin alderatuta
4. Eranskinak

RIS 2025 txostena osatzen duten adierazleak

Adierazlea	Deskribapena	Iturria	Urtea
Hirugarren mailako hezkuntza duten gazteak	Hirugarren mailako hezkuntza duten 25-34 urte bitarteko biztanleen ehunekoa (unibertsitateko gradua edo goi-mailako LH).	Eurostat	2024
Ikaskuntza bizitzan zehar	Inkesta egin baino 4 aste lehenago hezkuntza- edo prestakuntza-ikastaroetan erroldatuta dauden 25-64 urteko biztanleen ehunekoa.	Eurostat	2024
Nazioarteko elkarlanean landutako argitalpen zientifikoak	Egile atzerritar bat duten argitalpen zientifikoek kopurua, milioi bat biztanleko gutxienez.	Zenbakitzailea: Scopus (Science-Metrix) Izendatzailea: Eurostat	2024
Argitalpenak % 10 gehien aipatuenetan	Argitalpen zientifikoak, nazioartean gehien aipatzen diren argitalpenen artean (top-% 10), herrialdeko argitalpen zientifiko guztien % gisa.	Scopus (Science-Metrix)	2022
Gaitasun digitalak dituzten pertsonak	Oinarrizko trebetasun digitalak baino handiagoak dituzten 16-74 urteko pertsonen ehunekoa.	EB zenbatespena	2021
Banda zabalaren hedapena	Banda zabalerako sarbidea duten etxeen ehunekoa.	Eurostat	2021
Sektore publikoak egindako gastua I+Gn	Administrazio publikoek eta unibertsitateek I+G arloko barne-gastua, BPGrekiko.	Eurostat	2021
Enpresek egindako gastua I+Gn	Enpresek ² BPGren gainean egindako I+G arloko barne-gastua.	Eurostat	2021
ETEEK berrikuntzan egindako gastua, I+G ezik, fakturazioarekiko	ETeen gastua berrikuntzan (barne zein kanpo I+G ezik), ETEen guztizko kopuruarekiko.	Eurostat (CIS)	2022
ETeen gastua berrikuntzan langile bakoitzeko	Enpresek berrikuntzan egindako gastua, ETE berritzaileetako langile guztiekiko.	Eurostat (CIS)	2022
Hodei konputazioa enpresetan	Hodeiko konputazio-zerbitzuak erosten dituzten enpresen kopurua, enpresa guztiekiko.	Eurostat	2023
IKT arloan langile adituak	Eskualdeko informazioaren eta komunikazioaren sektoreko (NACE J) enpleguaren %/herrialdeko informazioaren eta komunikazioaren sektoreko (NACE J) enpleguaren %*, herrialdean lan egiten duten IKT adituekiko.	Eurostat	2024
ETE berritzaileak produktuan	Merkatuan ondasun edo zerbitzu berri bat sartu duten ETEen ehunekoa.	Eurostat (CIS)	2022
ETE berritzaileak negozio-prozesuan	Negozio-prozesu berri bat ezarri edo hobetu duten ETEen ehunekoa.	Eurostat (CIS)	2022
Beste ETE batzuekin elkarlanean dauden ETE berritzaileak	Lankidetzan berritzen duten ETEen ehunekoa (beste enpresa edo erakunde batzuekin berrikuntzako lankidetzak-akordioak dituzten ETEak), ETEen guztizko kopuruarekiko.	Eurostat (CIS)	2022

Kendutako adierazlea | Adierazle berria

(1) Euskadiren kasuan, Zentro teknologikoak eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ) enpresen artean daude, pribatuak baitira. Ez da gauza bera gertatzen Europako homologoekin, normalean Administrazio publikoen sektorekoak dira eta.

(2) IKT sistemak garatzeko, erabiltzeko eta mantentzeko gaitasuna duten langileak, IKTak bere lanaren zati handi bat hartzen du.

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2025.

RIS 2025 txostena osatzen duten adierazleak

Adierazlea	Deskribapena	Iturria	Urtea
Elkarlan publiko-pribatua landutako argitalpenak	Elkarlan publiko-pribatua landutako argitalpen zientifikoak, osasunaren arloko sektore pribatua kanpo (lurraldeen arabera esleipena, erakunde zuzendaritzaren arabera).	Scopus (Science-Metrix) Eurostat	2024
PCT patenteen eskaerak	EPO patenteen eskaerak BPGa PPParekiko (lurraldeen arabera esleipena, erakunde eskatzailearen zuzendaritzaren arabera).	OECD (REGPAT) Eurostat	2022
EBko merkataritzako marken eskaerak	EUIPO patenteen eskaerak BPGa PPParekiko (lurraldeen arabera esleipena, erakunde eskatzailearen zuzendaritzaren arabera).	EUIPO (Fraunhofer ISI-k emandakoa) Eurostat	2023
EBko diseinu-eskaerak	EUIPO patenteen eskaerak BPGa PPParekiko (lurraldeen arabera esleipena, erakunde eskatzailearen zuzendaritzaren arabera).	EUIPO (Fraunhofer ISI-k emandakoa) Eurostat	2023
Enplegua ezagutza intentsiboko sektoreetan ¹	Intentsitate teknologiko ertain-handiko/handiko manufaktura-sektoreetan eta ezagutza-zerbitzu intentsiboetan ¹ enplegatutako pertsonen ehunekoa, guztizko kopuruarekiko.	Eurostat	2021
Produktu berrien salmentak ETEetan	ETEen diru-sarrerak, produktu berriak edo nabarmen hobetutako produktuak saltzeagatik, ETEen guztizko diru-sarrerekiko.	Eurostat (CIS)	2022
Enplegua ETE berritzaileetan	ETE berritzaileetan lan egiten duten pertsonen ehunekoa (bertan behera utzitako edo jarduerak dituztenak edo aribidean daudenak barne).	Eurostat (CIS)	2022
Teknologia ertain eta altuko produktuen esportazioak	Esportatutako teknologia ertain eta altuko produktuen balioa esportazioen guztizko balioarekiko.	FIGARO-REG	2024
Partikula finen isuriak atmosferara	Partikula finen isuriak atmosferara (PM2.5) manufaktura-sektorean, sektoreko balio erantsiarekiko.	Ingurumenaren Europako Agentzia	2022
Lan-produktibitatea	BPG prezio konstanteetan, lan egindako ordu bakoitzeko.	Europako Batzordearen urteko eskualdeko datu-basea (ARDECO)	2024

Kendutako adierazlea | Adierazle berria

- (1) Intentsitate teknologiko ertain-handiko/handiko manufaktura-sektoreak: aeronautika, elektronika, industria kimikoa (farma barne), automozioa, trenbidea, makineria eta ekipo-ondasunak (ekipo elektrikoko ondasunak, makina-erreminta, etab.), etab. Ezagutza-zerbitzu intentsiboak, finantza-bitartekaritza izan ezik: garraioa, zerbitzu profesionalak, IKTak, I+G, etab.
- (2) Kopurua kalkulatzeko, jatorrizko herrialdeko esportazioetan eskualde batek irudikatzen duen ehunekoa erabiltzen da, 2017ko FIGARO datu-basearen arabera.

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS) 2025.

RIS txosteneko adierazleen analisia (serie historiko eguneratuarekin)

Bilakaera positiboa informazio publikokoak diren adierazleen erdietan baino gehiagotan

RIS ¹ adierazlea	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Bilakaera	Iturria
Esparru-baldintzen adierazleak													
Hirugarren mailako hezkuntza duten gazteak	57,6	56,2	57,3	57,5	59,4	60,8	61,7	64,4	64,2	67,6	67,8	↑	Eurostat
Ikaskuntza bizitzan zehar	11,9	12,9	11,7	13,2	12,7	13,0	13,1	16,7	17,4	18,2	18,4	↑	Eurostat
Inbertsio-adierazleak													
Banda zabalaren hedapena	76,59	82,78	82,21	86,31	89,00	91,43	95,46	95,53	E/E	E/E	E/E	↑	Eurostat
Sektore publikoak egindako gastua I+Gn	0,53	0,51	0,48	0,48	0,48	0,47	0,51	0,52	0,53	E/E	E/E	↑	Eurostat
Enpresek egindako gastua I+Gn	1,55	1,44	1,46	1,46	1,53	1,52	1,68	1,80	1,67	E/E	E/E	↑	Eurostat
ETEEK berrikuntzan egindako gastua, I+G ezik, fakturazioarekiko	0,22	0,22	0,27	E/E	0,29	0,43	0,36	E/E	0,27	E/E	E/E	↓	Eurostat (CIS)
ETEEen gastua berrikuntzan langile bakoitzeko	E/E	E/E	E/E	E/E	4,86	5,37	9,40	E/E	9,43	E/E	E/E	↑	Eurostat (CIS)
Hodei konputazioa enpresetan	E/E	E/E	E/E	E/E	E/E	E/E	E/E	E/E	E/E	30,61	E/E	E/E	Eurostat
Jarduera berritzaileen adierazleak													
ETE berritzaileak produktuan	E/E	E/E	E/E	E/E	19,69	21,03	22,81	E/E	22,00	E/E	E/E	↓	Eurostat (CIS)
ETE berritzaileak negozio-prozesuan	E/E	E/E	E/E	E/E	27,22	27,72	31,65	E/E	29,71	E/E	E/E	↓	Eurostat (CIS)
Beste ETE batzuekin elkarlanean dauden ETE berritzaileak	14,19	14,28	13,05	E/E	15,13	15,09	15,72	E/E	17,66	E/E	E/E	↑	Eurostat (CIS)
Inpaktu-adierazleak													
Enplegua ETE berritzaileetan	E/E	E/E	E/E	E/E	49,70	50,67	53,59	E/E	54,27	E/E	E/E	↑	Eurostat (CIS)
Produktu berrien salmentak ETEetan	15,02	14,38	16,46	E/E	9,97	15,09	15,39	E/E	14,63	E/E	E/E	↓	Eurostat (CIS)

RIS 2017
RIS 2019
RIS 2021
RIS 2023
RIS 2025

(1) RIS txostena osatzen duten 23 adierazleetatik 13ri buruzko informazioa baino ez dago eskuragarri; izan ere, gainerako adierazleak (ekoizpen zientifikoari, industria-babesari, jasagarritasunari eta digitalizazioari lotutakoak) ad hoc ustategietatik datoz.

Iturria: Europako Batzordea. Regional Innovation Scoreboard (RIS); Eurostat; INE.

I+G arloko gastu publiko eta pribatuaren bilakaera BPGrekiko, hainbat egoeratan

	I+G arloko gastua, BPGrik gabe (%; datu gordina)		
	RIS 2021	RIS 2023	RIS 2025
Publikoa			
EB-27	% 0,72	% 0,77	% 0,75
Euskadi	% 0,48	% 0,51	% 0,52
Euskadi+IKZ ¹	% 0,80	% 0,88	% 0,88
Euskadi+ZT+IKZ ¹	% 0,96	% 0,94	% 0,96
Pribatua			
EB-27	% 1,45	% 1,50	% 1,48
Euskadi	% 1,54	% 1,68	% 1,78
Euskadi-IKZ ¹	% 1,48	% 1,61	% 1,71
Euskadi-ZT-IKZ ¹	% 1,17	% 1,24	% 1,34

Euskadiren pisua (EB-27=100)		
RIS 2021	RIS 2023	RIS 2025
100	100	100
67,02	66,99	69,04
110,78	115,48	117,66
133,88	122,43	128,49
100	100	100
105,87	111,82	120,66
102,01	107,13	115,61
80,34	82,36	90,99

(1) Eustatek emandako ZTen eta IKZen datua gehitu da eta gainerako datuak Eurostatek eman ditu.
Iturria: Eurostat eta Eustat.



Berrikuntza, Euskal Jarrera
Innovación, Actitud Vasca

innobasque.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA
BERRIKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE CIENCIA,
UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN